



Lezoko Unibertsitateko Udala



Famili eskuhartzea 2013
2013ID170004

**ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA; ZERBITZUAK PROZEDURA IREKI
BIDEZ KONTRATATZEA**

I. KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea, espedientean zehaztutakoekin bat etorritz, hau da: **FAMILIA ESKU HARTZEAREN ZERBITZU DESBERDINAK GAUZATZEA**, espedienteko dokumentazio teknikoarekin bat etorritz.

Lanaren kopuru osoa ez da aurretik zehaztu, eta, beraz, Administrazioak eskatu ahala eman beharko ditu kopuruak kontratistak, kontratuak dirauen bitartean.

CPV-08 kodea: 85.32.16 Egoitzarik gabeko bestelako gizarte zerbitzuak.


2. EPEA

Kontratuaren iraunaldia hau izango da: bi urte, Kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik hasita kontatuko da epe hori.

Kontratua luzatu egin daiteke, alderdi biek batera hala erabakitzen badute, eta luzapenak, gehienez, beste urte bat iraun dezake.

3. KONTRATUAREN AURREKONTUA

Kontratu-mota honen izaera kontuan izanda, kontratuaren aurrekontu osoa ezarri beharrean, zerbitzu-unitateen prezioak zehaztu dira. Zerbitzu-unitateen prezioak, espedientean ageri dira banaka. Lizitatzailleek kopuru horiek hobetu ditzakete. Kasu honetan, guztizko aurrekontu zenbatetsia hau izango da: 119.900 €, BEZik gabe.



Lezo, 2013 IRA. 16



Idazkariak,

Lezoko Unibertsitateko Udala

4. FINANTZABIDEAK

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da aurtengo ekitaldiko aurrekontuan. Halaber, eragindako hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar adina kreditu jarriko ditu aurrekontu gaietan eskumena duen organoak.

5. NOLA ORDAINDU

Administrazioari kobrantza-agiri egokia aurkeztu eta berak onartu ondoren ordainduko da kontratuaren prezioa.

6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Kontratu honen prezioak berraztertu ahal izango dira. Berraztertze hori bat dator Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 89 eta 94 bitarteko artikuluetan eta lege hori garatzen duen Araudi Orokorraren 104 eta 106 bitarteko artikuluetan xedatutakoarekin.

Berraztertzean erabili beharreko formula honako hau izango da: Kontsumoaren gaineko Prezioen Indizea aplikatuko da.

7. BERMEAK

Kontratuaren esleipendunak, hartutako konpromisoak beteko dituela bermatzeko, behin betiko bermea eman beharko du. Berme hori kontratuaren esleipen zenbatekoaren % 5a izango da, BEZa kenduta.

Berme hori jartzeko epea egutegiko 10 egunekoa izango da, 21. baldintzan aipatutako eskakizuna jasotzen duen egunetik kontatzen hasita. Bermea jartzeko bidea, berriz, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 96. artikuluan azaltzen direnetatik edozein izan daiteke. Bermea eratu dela egiaztatzeko bitarteko elektronikoko, informatiko edo telematikoko erabil daitezke. Baldintza hori ez bada betetzen lizitatuzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, Udalak ez du esleipena bere alde egingo.

Lezo, 2013 IRA. 16



Idazkariak,

Berme-epa amaitzen denean, esleipendunari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badaude. Itzulketa hori goian aipatutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 102. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriko da.

8. KONTRATUA BURUTZEA

Kontratua kontratistaren gain eta kontura burutuko da.

Zerbitzuak egiterakoan, agiri honetan dauden baldintzak bete behar dira, bai eta espedienteari erantsitako xehetasun teknikoak ere, halakorik egonez gero. Kontratua Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Kontratistari edo haren aginduekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

9. KONTRATISTAREN LAN EGINKIZUNAK

Kontratistak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienezko arloan indarrean dauden legeko xedapenak bete behar ditu. Udalak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

10. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Kontratistaren ardura da hornidura-eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 214. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriko da.

Lezo, 2013 IRA. 16



Idazkariak,

Lezoko Unibertsitateko Udala

11. KONTRATUA ALDATZEA

Herri-onurako arrazoiak direla eta, Administrazioak kontratua aldatzea izango du SPKLTBaren 107 artikuluan jasotako egoeraren bat gertatzen bada beti ere, lizitazioaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak aldatzen ez badira.

Lehen aipatutako aldaketak derrigorrezkoak izango dira kontratistarentzat.

12. PRESTAZIOA HARTZEA ETA BERME EPEA

Zerbitzua eman eta, gehienez, 10 egun pasa baino lehen, zerbitzuaren harrera formala egingo da, hemen: Lezoko Ongizate sailean.

Kontratu-mota honen izaera dela eta, ez da berme-eperik jarri behar.

13. KONTRATISTARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU

A. KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK EZ BETETZEA

Kontratastak, bere erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan burutu gabe baditu epe horietan egin beharreko obrak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo obrak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,20 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euroko.

Lanak garaiz burutu ez izanagatik zigorra kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiplo bat izatera iristen den bakoitzean Kontratazio Organoak kontratua eteteko eskumena du, edo kontratuaren jarraipena adosteko, zigor berriak ezarrita.

Lezo,

2013 IRA. 16



Idazkariak,

B. PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA EZ BETETZEA

Kontratatik, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Udalak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko diru-zigorra ezartzea.

C. KONTRATUA BURUTZEAN AKATSAK EGITEA

Prestazioa burutzean akatsak izan badira, Udalak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren % 10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du.

D. KAUDIMEN KONPROMISOAK EZ BETETZEA

Kontratatik bere eskaintzan adierazitako bitartekoak - adierazitako gaitasunekin- erabiltzeko betebeharra ez badu betetzen, 20. klausulan adierazi bezala, Administrazioak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren % 10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du.

14. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Zerbitzu-kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 223 eta 308. artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

15. ADMINISTRAZIOAREN ESKUDUNTZAK

Udalari dagokio a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuan eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Lezo, 2013 IRA. 16



Idazkariak,

Lezoko Unibertsitateko Udala

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

16. ESLEIPENAREN PROZEDURA

Kontratu honen esleipena prozedura ireki bidez egingo da.

Kontratuaren esleipenaren oinarri gisa erabiliko diren eskaintzak balioesteko irizpideak eta esleitzen zaien haztapena honako hauek dira:

- Eskaintza ekonomikoa: 60 puntu gehienez
- Proiektu teknikoa: 25 puntu gehienez
- Hobekuntzak: 15 puntu gehienez

Aipatu irizpideen artean, balio-judizio baten arabera izan eta automatikoki antzematen direnak baino lehenago balioetsiko direnak, honako hauek dira:

- Proiektu teknikoa: 25 puntu gehienez. Proiektuak gehienez 20 orrialdekoa izan daiteke. Kopuru horretatik gora orrialde bakoitzeko puntu 1 kenduko da. Proiektuan ondorengo atalak baloratuko dira:
 - i. Zerbitzuaren fundamentua: Babesgabeko egoeran dauden nerabe eta haurren artatzean ardura publikoa.
 - ii. Arlo tekniko eta metodologikoa: Helburuak ,Lan metodologia.
 - iii. Enpresaren giza baliabideak: Eraketa osagarria.
- Hobekuntzak: 15 puntu gehienez. Enpresak egindako hobekuntza proposamenak baloratuko dira.

Automatikoki antzematen diren irizpideak, jarraian adierazten direnak, honako formula hauek aplikatuz balioetsiko dira:

Eskaintza ekonomikoa: eskaintza merkeenari 60 puntu emango zaizkio eta gainontzekoei hiruko erregela aplikatuko zaie.

Lezo,

2013 IRA. 16



Idazkariak,

17. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Mahaia honako kide hauek osatuko dute:

- Lehendakaria: Ainhoa Zabalo (Alkatea)
- Batzordekideak: Mikel Arruti (zinegotzia), Eneko Lartige (zinegotiza), Udal Idazkaria, Udal Kontuhartzailea
- Mahaiko idazkaria: Aitor Iztueta
- Ordezkoak:
 - o Lehendakariarena: Eneko Lartige
 - o Mikel Arrutirena: Ainhoa Intxarrandieta, Eneko Lartigeréana: Angel Portugal
 - o Idazkariarena: Karlos Etxezurieta

18. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoez parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeke debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena egiaztatzeke eta ebaluatzeke bideak 20.e) baldintzan ezarritakoak izango dira.

Pertsona fisiko edo juridikoez beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariak kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari baten kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatzeke gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.


Enpresariak, gainera, kontratu hau burutzeko eska daitekeen gaitasun enpresarial edo profesionala izan beharko dute.

Lezo, 2013 IRA. 16



Idazkariak,

Lezoko Unibertsitateko Urtia



19. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

Kontratazio honen espedientea, bai eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, honako lekuan, ordutegian eta epean aztertu ahal izango da: LEKUA: Administrazio honetako Ongizate Saila ORDUAK: 8:30 – 13:30 EPEA: Egun baldiodunetan, lizitazio honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eta proposamenak aurkezteko epea bukatu arte.

Proposamenak aurretik adierazitako lekuan eta ordutegian aurkeztuko dira, egutegiko 15 eguneko epean, iragarki hori argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Gainera, eskaintza hau kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da, eta honako atari informatiko edo web gunean ere eskuratu ahal izango da: www.lezo.net

Gune berean, baldintza-agiriak eta dokumentazio osagarria ere eskuratu ahal izango da.

Lizitatuzaileek eskatutako baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria proposamenak hartzeko data iraungi aurreko sei egunetan, gutxienez, beti ere eskaintzak aurkezteko epea iraungi baino gutxienez zortzi egun lehenago egindako eskariak badira.

SPKLTBaren 158.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria aipatutako epeen barruan entregatzerik izan ez bada, edo eskaintzak egiteko alde aurretik lanen tokian bertan bisita egin behar bada edo baldintza-agiriari erantsitako dokumentazioa "in situ" kontsultatu behar bada, eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da, hautagai guztiek beharrezkoa duten informazioa jaso dezaten ahalbidetzeko adina.

Ez dira onartuko epe horretatik kanpo aurkeztu diren proposamenak, nahiz eta postetxean epea amaitu baino lehen bidali. Dena dela, proposamena onartu egingo da baldin eta epe barruan bidali zela egiaztatzen bada.

Lezoko Unibertsitateko



Horretarako, lizitatuzaileak, proposamena bidaltzen duen egunean bertan, posta-egiaztagiria bidali beharko dio kontratazio-organoari telekopiaz, faxez, telegramaz edo posta elektronikoz. Posta elektronikoz bidatzen badu, baliozkoa izan dadin, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Araudi Orokorren 80.4 artikuluan ezarritakoa bete beharko du.

20. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA

Lizitatuzaileek hiru kartazal (A, B eta C) aurkeztuko dituzte itxita. Kartazal bakoitzean honako hau idatziko da: "FAMILIA ESKU HARTZEAREN ZERBITZUAN PROZEDURA IREKI BIDEZ EGINGO DEN KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA".

Kartazal bakoitzean enpresaren izena eta proposamen-izenpetzailearen izen-abizenak jarriko dira, noren izenean izenpetzen duen zehaztuz. Hiru kartazalek ere izenpetuta egon beharko dute.

"A" kartazalaren azpiztitulua hau izango da: "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA". Hona hemen "A" kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

a) Parte-hartzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia. Gainera, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalordea aurkeztuko da eta erakunde honek askietsiko du kartazal horretan aurkeztutako agiriaren sailkapen-prozesuan.

b) Lizitatuzailea pertsona juridikoa izanez gero, eratze- edo aldaketa-eskritura aurkeztuko du, behar bezala inskribaturik Merkataritza Erregistroan eta identifikazio fiskaleko zenbakian, inskripzioa derrigorrezkoa baldin badu, aplikatu behar zaion merkataritzako legeriaren arabera. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuko du jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lizitatuzailearen jarduera zuzentzen duten arauak.

Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, lanbide- edo merkataritza-erregistroko inskripzioaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, beren estatuko legeriak inskribatu beharra ezartzen baldin badie.

Lezo, 2013 IRA. 16



Idazkariak,

Lezoko Unibertsitateko Udala

Bestelako enpresari atzerritarren jarduteko gaitasuna Espainiak dagokion Estatuan duen Diplomaziako Misio Iraunkorraren edo enpresaren egoitza hartzen duen lurralde-eremuko Kontsul Bulegoaren txostenaren bidez frogatuko da.

c) Eskaintzaileak erantzukizunpeko berariazko aitortpena aurkeztu behar du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan kontratatzeko ezarritako debekuetatik bat bera ere ez duela agertzeko. Aitorpen horretan berariaz adieraziko du kitaturik dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, indarrean dauden xedapenek ezarritakoak; edo, hala egiten ez badu, egiaztagiriak aurkeztuko ditu, betebeharrak horiek beterik dituela frogatzeko.

d) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lizitatuak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan baxerik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.

e) Kaudimen teknikoa eta ekonomikoa:

Horretarako, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 75. artikuluko a) letran eta 78. artikuluko e) letran ezarritako bideetatik edozein erabili ahal izango da.

Goian aipatutako bitartekoak direla eta, kontratu hau burutzeko enpresek behar dituzten gutxieneko kaudimen-baldintzak hauek dira:

- Kaudimen ekonomikoari dagokionean finantza entitate baten aitortpena beharko da edo arrisku profesionalengatik kalte ordainen aurre egingo dien seguru bat izatea.
- Kaudimen Teknikoari dagokionean: Kontratu honetako **BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIKO 6 ATALEAN** adierazten den pertsonala aurkeztuko da, zehazten diren baldintza guztiekin: Baldintza guzti hauek – titulazioa eta hizkuntza gaitasuna- frogatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira.

Lezoko Unibertsitateko

Lezo,

2013 IRA. 16



Idazkariak,

Kaudimena frogatzeko, gainera, lizitatuzaileek haien eskaintzetan zehaztutako baliabide materialekin eta giza baliabideekin osatuko da. Hori kontratuari atxikiko zaio derrigorrezko izaeraz eta, beraz, SPKLTBaren 64.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, hori betetzen ez bada kontratua bertan behera uzteko arrazoi izango da 223.f) artikuluan adierazi bezala.

Proposamenetan, kontratua burutuko duten langileen izen-abizenak eta horien lanbide-prestakuntza adierazi beharko dira.

f) Hainbat enpresak lehiaketara jotzen badute aldi baterako enpresa-batasuna eratzuz, taldekide bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena frogatu beharko ditu aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Esleipena lortuz gero AEB formala eratzeko konpromisoa agertu beharko dute enpresa guztiek. Bestaldetik, aldi baterako enpresa-batasuneko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen adierazi beharko dute proposamenean, kide bakoitzaren kaudimen-baldintzak zehaztu eta egiaztatu ahal izateko.

g) Atzerriko enpresak badira, Espainiako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla adierazi beharko dute, kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala egokituz gero, lehiatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzioari uko egingo lioketela.

h) Prozedura horren ondorioz sortzen diren jakinarazpenak egiteko helbide elektronikoa, SPKLTBaren 151.4 artikulua xedatutakoaren arabera.

Goiko a), b) eta e) puntuetan adierazitako baldintzak ziurtatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin, Estatuko Lizitatuzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin, edo Europar Batasuneko sailkapen-ziurtagiri batekin, SPKLTBaren 84. artikulua xedatutakoaren arabera. Aipatu ziurtapenarekin batera, adierazitako egoerak aldatu ez direla ziurtatzen duen lizitatuzailearen ardura-adierazpena ere gehitu beharko da.

Aurreko atalean aipatutako ziurtapena elektronikoki eman daiteke.

Lezo, 2013 IRA. 16



Idazkariak,

Lezoko Unibertsitateko Udala

"B" kartazalaren azpititulua hau izango da: "BALIO JUDIZIO BATEN ARABERAKO BALIOESPEN IRIZPIDEAK". Bertan, baldintza-agiri honen 16. klausulan adierazitako balio-judizio baten menpe dauden irizpideei buruzko agiriak jasoko dira.

"C" kartazalaren azpititulua hau izango da: "DIRU-PROPOSAMENA ETA AUTOMATIKOKI BALIOESTEKO IRIZPIDEAK". Hona hemen "C" kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

- a) Banakako prezioen zerrenda, hala dagokionean.
- b) I. Eranskinean xedatutako ereduaren arabeko diru-proposamena.
- c) Baldintza-agiri honen 16. klausulan adierazitako automatikoki antzemateko irizpideei erreferentzia egiten dieten agiriak.

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. Kopiak aurkeztekotan, aurretik Administrazioak edo notarioak behar bezala kautotu edo egiaztatu behar ditu. Aipatu agiriak fotokopia hutsean ere aurkez daitezke baina, kasu horretan, lehen sailkatuak fotokopia horiek benetakoak direla erakutsiko du jatorrizkoak emanez.

(25. jarraibidea)

21. AURKEZTUTAKO AGIRIAK IREKI ETA PROZESATZEA ETA ENPRESAK AUKERATZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean, honako lan hauek burutuko dira:

1. "A" KARTAZALA IREKI ETA BERTAN DAUDEN AGIRIAK PROZESATZEA

Mahaiak "A" kartazalean dauden agiriak sailkatuko ditu. Horretarako, lizitatzailen gaitasun eta kaudimenari buruzko argibideak edo agiri osagarriak eska daitezke. Mahaiak, horretarako, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorreko 22. artikuluan adierazten den eran jardungo du, bost egun naturaleko epean. Mahaiak interesdunei ahoz eskatu behar dizkie argibide eta agiri osagarri horiek, eta gainera eskaera idatzia jarri behar du kontratazio-organoaren iragarki ohelean eta kontratatzailearen profilean. Era berean, lizitatzailerek aurkeztutako agirietan zuzentzeko moduko akatsak agertzen badira, Mahaiak ahoz eta iragarki bidez emango die horren berri lizitatzailerei, eta hiru egun balioduneko epea jarriko die, aipatutako Araudiko 81. artikuluan, akatsak zuzen ditzaten.

Lezo, 2013 IRA. 16



Idazkariak,

2. ENPRESAK AUKERATZEA

Behin agiriak sailkaturik, eta akats eta hutsuneak zuzendú eta gero, halakorik badago, baldintza-agiri honen 20. baldintzako e) letran azaltzen diren irizpideak zein enpresak betetzen dituzten zehaztuko du Mahaiak, eta berariaz adieraziko du zein enpresa onartu dituen lehiaketarako, zein baztertu dituen eta zergatik baztertu dituen.

3. "B" KARTAZALA PUBLIKOKI IREKITZEA

"B" kartazalean aurkeztutako dokumentazioa, balio-judizio baten arabera irizpideen baitan, publikoki irekiko da publikoki kontratatzailearen profilean adierazitako egun eta orduan. Dokumentazio horretan akatsak edo gabeziak zuzendu behar badira, Mahaiak, gehienez, sei egun balioduneko epea emango du horretarako, SPKLaren zati bat garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 EDaren 27. artikuluan xedatutakoaren arabera.

4. "C" KARTAZALA PUBLIKOKI IREKITZEA

"B" kartazalean zegoen dokumentazioa ireki eta balioetsi ostean, "C" kartazala irekiko da publikoki kontratatzailearen profilean adierazitako egun eta orduan. Dokumentazio horretan akatsak edo gabeziak zuzendu behar badira, Mahaiak, gehienez, sei egun balioduneko epea emango du horretarako.

Ekitaldi horretan, eskaintza bakoitzean balio-judizio baten menpeko irizpideei esleitutako balorazioa jakinaraziko da.

5. ESKAINTZAK SAILKATZEA

Irizpide guztiak balioesten direnean, Mahaiak aurkeztutako proposamenak sailkatuko ditu garrantziaren arabera eta esleipen-proposamena aurkeztuko dio esleipena egin behar duen kontratazio-organoari.

SPKLTBaren 152. artikuluan xedatutakoaren arabera, eskaintza anormaltzat edo neurritz gainekotzat jotzen denean lizitatzailerari (edo lizitatzailaeei, hala dagokienean) entzungo zaio, eta dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa egin beharko du.

Lezo, 2013 IRA. 16



Idazkariak,

Lezoko Unibertsitateko Udala

Kasu honetan, lizitatuzaileak emandako arrazoiak eta txostenak aintzat hartuta, Kontratazio Organoak ekonomikoki proposamenik onuragarriena egiten duen lizitatuzaileari egingo dio esleipena, beti ere Administrazioaren lanak egiteko gaitasuna duela.

Aitzitik, kontratazio-organoak eskaintza ezin dela bete uste badu balio anormal edo neurrigabeak dituelako, sailkapenetik baztertuko du eta ekonomikoki proposamenik onuragarriaren aldeko esleipena egingo du, proposamenak sailkatu diren ordenari jarraiki.

Emandako pauso guztien berri emango da espedientean, derrigorrean idatziko diren aktetan jasoaz.

6. ERREKERIMENDUA, HALA BADAGOKIO, LEHEN SAILKATUARI

Aurreko pausoak eman ostean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita hamar egun balioduneko epean, lehen sailkatuari honako ekintzak egin ditzala eskatuko zaio:

- a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik dituela frogatzen duten agiriak aurkeztea edo kontratazio-organoari egoera hori horrela dela ziurtatzeko modu zuzena lortzeko baimena ematea. Ez da beharrezkoa izango agiri horiek berriz ere aurkeztea proposamenarekin batera aurkeztu baditu.
- b) Kontratua burutzeko beharrezkoak dituen bitartekoak eskuratzeko konpromisoa betetzen duela ziurtatzeko agiria aurkeztea, baldintza-agiri honen 20. klausulako e) letraren arabera.
- c) Behin betiko bermea eratu denaren egiaztapena aurkeztea, hala badagokio.
- d) Jatorrizko agiriak aurkeztea, proposamena osatzen duten kartazaletan fotokopia hutsak aurkeztu badira.

Errekerimendua ez bada aipatutako epean behar bezala betetzen, lizitatuzaileak eskaintza baztertu duela ulertuko da eta, kasu horretan, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatuzaileari, eskaintzen sailkapenaren arabera.

Lezo, 2013 IRA. 16



Aldazkariak,

22. ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK

Kontratazio-organoak ekonomikoki proposamenik onuragarriena egiten duen lizitatzaileri egingo dio esleipena.

Esleipena 2 hilabeteko epean egingo da proposamenak irekitzen diren egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Horren berri lizitatzaille guztiei emango zaie eta Erakunde honen kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratua, lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokituko den administrazio-agiri gisa formalizatuz burutuko da eta aipatu agiria nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Hala ere, kontratistak kontratua publikoki aurkezteko eskaera egin dezake eta horri dagozkion gastuak bere kontura izango dira.

Esleipenaren jakinarazpenean adierazitako epean, zeina ezingo den 15 egun baliodun baino gehiagokoa izan, esleipendunak honakoak egingo ditu:

- a) Administrazio honen bulegoetara etortzea, kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko.
- b) Aldizkari ofizial eta argitaraldi bakar bateko publizitate ofizialeko gastuak ordaintzea. Gastu horien zenbatekoa 3.000 € izango da, gehienez.

III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

23. KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Baldintza-agiri honen arabera egingo den kontratuak administrazio-izaera izango du eta baldintza-agiri honen eta atxikitako gainerako agiri teknikoen arabera burutuko da.

Lezo, 2013 IRA. 16



Idazkariak,

Lezoko Unibertsitateko Udala

Bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, hauetan xedatutako arauak beteko dira: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuak onartzen duen, azaroaren 14ko, 3/2011 Errege Dekretu Lagislatiboa; Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua; urriaren 12ko 1098/200a Errege Dekretuak onartzen duen Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorra, 3/2011 EDLren aurka ez doan arauetan; eta, hala badagokio, Herri Administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerako arauak.

Administrazio Baldintza Zehazten Agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

24. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira, kontratatzaileak SPKLTBaren Hogeita Seigarren Xedapen Gehigarrian adierazitakoak bete beharko ditu, Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hori garatzen duten arauetan xedatutakoak biltzen baitira bertan.

25. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratu honen ondorioz sor daitezkeen gai eztabaidagarriak kontratazio-organoak ebatziko ditu eta organoak erabakitakoek administrazioaren biderei amaiera emango diote, hala badagokio, SPKLTBaren 40. artikulutik 49. artikulura xedatutakoaren arabera, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean araututako edozein artikuluren arabera, kontratazioaren alorrean errekurtsio berezia jartzeko aukeraren aurka egin gabe.

....., 20... (e)ko aren (a)



Leizoko Unibertsitateko U

GOBERNU BATZORDEAK
20.13(e)ko irailaren 17(e)an onartua.
Aprobado por COMISION DE GOBIERNO
el día de de 20

Lezo,

2013 IRA. 16



Idazkariak,

ERANSKINA LIZITATZAILEEK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENENK JARRAITUKO DUTEN
DIRU PROPOSAMENAREN EREDUA

Lizitzailearen datuak: Izen-abizenak

Helbidea Posta kodea, NAN

zenbakia, Telefonoa Helbide

elektronikoa....., zuzenbideko eta jarduteko gaitasun osoarekin. Ordezkararen

datuak (ordezkaririk egonez gero): Izen-abizenak Helbidea

..... Posta kodea, Telefonoa

..... NAN edo IFK zenbakia (pertsona fisiko edo juridikoa denaren arabera)

..... kontratatzeko asmoz k dei egindako

prozedura ireki bidezko kontratazioan parte hartzeko gonbita jaso dudala, hona hemen nire

ADIERAZPENA:

1) Hitz ematen dut idatzi honekin batera doazen banakako prezioetan eta kontratuan ezarritako epean burutuko dudala. Prezio horietan gai guztiak sartzen dira: zergak, gastuak eta zergen arloko edozein tasa edo ariel, bai eta kontratistaren industri onura ere.

2) Arau teknikoen agiria, administrazio-baldintza zehatzen agiria eta kontratu hau arautu behar duten gainontzeko agiriak ezagutzen ditut. Horiek horrela, neure gain hartu eta ontzat hartzen ditut oso-osorik.

3) Ordezkatzen dudan enpresak, ireki, instalatu eta jarduteko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen ditu.

....., 20....(e)ko aren(a)

Izenpea